

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKA

Programa: 15 TREBIÑU ARABAN SARTZEA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 10 DESARROLLO ECONÓMICO Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 15 INCORPORACIÓN DE TREVIÑO A ÁLAVA

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Programa honen helburua Trebiñu Araban sar dadin beharrezkoak diren ekintzak eta laguntzak inplementatzeko baliabide ekonomikoak bideratzea da.

Programaren bidez, anakronismo historiko honi amaiera eman nahi zaio, Trebiñuko biztanleria gehienaren borondatearen kontrakoa baita.

2017an, martxoaren 29ko 6/2017 Foru Araua onartu zen, Arabako Foru Aldundiaren eta Burgosko Probintzia Diputazioaren artean Trebiñuko enklabeari buruzko lankidetzarako esparru akordioa berresten duena.

Aldi baterako hitzarmen hori bukatutzat joko da aldeetako edozeinek berariaz hala eskatzen badu, helburu guztiak bete direlako edo behin betiko irtenbidea aurkitu delako enklabearen egoera modu iraunkorrean konpontzeko, ordenamendu juridikoarekin bat etorritz. Aldeek hiru hilabeteko aurrerapenez eman beharko diote horren berri elkarri.

Gero, hitzarmen zehatzak negoziatu dira, esparru akordioan jasotako jardun arloetarako.

Aldian behin batzarrak egin dira Trebiñuko udalekin, eta egindako negoziazio prozesu guztien berri eman zaie.

Beste alde batetik, Trebiñuko udalei obra jakin batzuk egiteko dirulaguntzak eman zaizkie.

Azkenik, Trebiñu ikastolari dirulaguntza eman zaio, instalazioak hobetzeko helburuz.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Programaren helburuak ongi bete direla uste dugu.

I. MEMORIA

Este programa tiene por objeto destinar recursos económicos para implementar las acciones y apoyos necesarios para la incorporación de Treviño a Álava.

Con este programa se pretende cerrar un anacronismo histórico que, además está en contra de la voluntad de la mayoría de la población de Treviño.

En el año 2017 ha sido aprobada la Norma Foral 6/2017, de 29 de marzo, de ratificación del acuerdo-marco de colaboración entre la Diputación Foral de Álava y la Diputación Provincial de Burgos en relación con el Enclave de Treviño.

Dicho convenio, de carácter transitorio, finalizará por denuncia expresa de cualquiera de las partes comunicada a la otra con tres meses de antelación, por haberse cumplido todos sus objetivos o, por haberse alcanzado una solución definitiva conforme al ordenamiento jurídico que resuelva con carácter permanente la situación del Enclave

Posteriormente han sido negociados convenios específicos para las áreas de actuación recogidas en el acuerdo marco.

Se han mantenido reuniones periódicas con los Ayuntamientos del Enclave y han sido informados de todos los procesos de negociación llevados a cabo.

Por otro lado se han otorgado subvenciones para ciertas obras a los Ayuntamientos del Enclave.

Por último se ha concedido a la Ikastola Treviño una subvención para la mejora de sus instalaciones.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Se considera satisfactorio el grado de cumplimiento de los objetivos del programa.